



DONOSTIAKO XVI. 15 km-ko HERRI LASTERKETA, **2012ko ARAUDIA**

1. ARTIKULUA- EGUNA ETA ORDUA

Gipuzkoako Atletismo Federazioak (GAF) Fly Group enpresarekin batera, Donostiako **XVI. 15 km-ko Herri Lasterketa antolatuko du 2012ko urriaren 21rako.**

Irteera puntua Madrid Hiribidean izango da, eta helmuga Anoetako Estadioan. Lasterketa amaitzeko denbora muga 1 ordu eta 45 minutukoa izango da.

Irteera orduak:

09.55: Urrituak, gurpil-aulkian.

09.45: Lineako patinatzaileak .

10.00: Gainerako lasterkariak.

Hirian zehar izango da ibilbidea, 15 kilometrokoa, eta oso-osorik GAFk eta RFEAk homologatua.

2. ARTIKULUA- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan edozeinek parte har dezake, edozein kategoría, sexu edota herrialdekoa izanik, federatua izan edo ez, eta 16 urte beteta baditu 2012/10/21^a baino lehen.

Partaide kopurua: gehienez 5.000 lasterkari.

3. ARTIKULUA- IZENA EMATEA

LEHENTASUNEZKO IZEN-EMATEA

2010 eta 2011. URTEETAN PARTE HARTU ZUTEN ATLETEK, martxoaren 29tik maiatzaren 1era prezio merkeagoan izena emateko aukera izango dute: 13 euro (CHAMPION CHIPeko txipa daukanak) eta 15 euro (txipa behar duenak).

Lehentasunezko izen-emateak online egin behar dira.

GAINERAKOAK

Izena emateko epea maiatzaren 2an irekiko da erabat, eta zabalik izango da urriaren 7a arte; 17 euro (norbere txipa daukanak,txip horia) eta 19 euro (txipa behar duenak) kostatuko da.

Urriaren 8tik aurrera, 20 euro (norbere txipa daukanak,txip horia) eta 22 euro (txipa behar duenak) kostatuko da.



Izena Internetez ematean, Etiopia Utopia Fundazioari edo Dravet Sindrome Fundazioari euro 1eko laguntza emateko aukera egongo da.

Ohar garrantzitsua: probaren egunean ez dago izena emateko aukerarik.

Urriaren 7 a arte izen eman dutenak dortsala nominala izango dute, eta dortsala Robers(Donostia) edo Robers (Azpeitia) an jaso ahal izango dute. Beti ere, jasotze kupoa bete ez bada.

IZENA NOLA EMAN

3.1 ON LINE (ONARTUTAKO TXARTELA : DEBITU EDO KREDITUZKOA)

Izen ematea on-line egin daiteke www.15kmsansebastian.com web ofizialaren bidez, matxoaren 29tik aurrera (2010ean edo 2011ean inskribatu zirenentzat soilik) eta maiatzaren 2tik urriaren 16a arte (gainerako guztiak).

3. 2 SALMENTA PUNTUAK

Maiatzaren 2tik aurrera ondorengo dendetan ere izena eman daiteke. :

ROBERS (Larramendi 10, Donostia)
ARADI (Olatz Plaza 7, Azpeiti)
GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOA (Anoeta pasealekua 5, Donostia)

4. ARTIKULUA- IZENA EMATEKO DIRUA ITZULTZEA

Behin inskripzioa egitean, inola ere ez da dirurik itzuliko.

5. ARTIKULUA- TXIPA ETA DORTSALA NON JASO

Dortsala eta txipa Anoetako Estadioko 2. atean jaso ahal izango dituzte partaideek, ondorengo egun eta ordutegietan:

Urriak 20, larunbata 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.
Lasterketa egunean, 08.00etatik 09.00era.

Nortasun agiria aurkeztea derrigorrezko izango da, dortsala eta txipa jasotzeko.

Dortsala eta txipa erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

Izen ematea egiterakoan, Robers Donostia edo Robers Azpeitian dortsala jasotzeko aukera emango da. Puntu hauetan ondorengo egun eta ordutegian entregatuko dira:

Urriaren 16tik Urriaren 19ra (biak barne) 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.



Aukera hau zabalik egongo da 1000 eskaera (Donostia) eta 300(Azpeitia) eskaeretako kupoa bete arte.

ALOKAIRUAN EMANDAKO TXIPA ITZULTZEA

Alokairuan emandako txipak itzuli egin behar dira proba bukatu bezain laster, dortsalak jaso diren leku berean (Anoetako 2.atea).

Bertan itzultzeko aukerarik izan ezean, posta arruntez bidali beharko dira ondorengo helbidera: Fly Group- Pol Ind Alkarregi, parc 12 pab 5-20120 Hernani.

6. ARTIKULUA – DENBORA MUGA

Lasterketak gehienez 1h 45 minutuko iraupena izango du. Eta hurrengo denbora pausoak betetzen ez dituzten korrikalariak, lasterketatik kanpo geratuko dira:

Km 5: 35 min

Km 10: 1h 10 min

Km 15: 1h 45 min

(7min/ km)

7. ARTIKULUA – DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Lasterketaren irteeran, zirkuituan eta helmugan kontrolak ipiniko dira, eta lasterkari guztiek derrigorrez pasa beharko dute oinpeko kontroletik.

Gipuzkoako Atletismo Federazioaren epaileek kontrolatuko dute lasterketa.

Lasterkariak deskalifikatuak izango dira honako kasuetan,:

- Txipa zapatilan ipintzen ez dutenak eta ezarritako kontroletatik pasatzen ez direnak.
- Ibilbide osoa burutzen ez dutenak.
- Dorsalaren publizitatean aldaketak egin edo ezkututzen dituztenak.
- Beste lasterkari baten dortsala edo txipa eramaten dutenak.
- Aurtengo edizioko dortsala ez daramatenak.
- Helmugara dortsalik gabe iristen direnak.
- Proban izena eman ez duten lasterkariak edo ofizialak ez diren ibilgailuen laguntza edo hornidura jasotzen dutenak.



- Erbi laguntza jasotzea izen eman ez duen perstona betengan edo antolakuntzatik kanpo dagoen perstsona batengan.
- Ibilbidearen mapan agertzen diren hornidura postu ofizialetatik kanpo hornitzen direnak.
- Epaileen edo antolakuntzako lankideen aginduak jarraitzen ez dituztenak.
- Ibilbidearen barnean haurren aulkiak edo kotxeak eramaten dituztenak.
- Hurrekin ibilbidearen barnean korrika egiten dutenak.
- Proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak antolakuntzakoak izango dira, eta hauek behar bezala bereizita egongo dira.

8. ARTIKULUA – HORNIDURA

Hornidura postu orokorra 5 km-tik 5 km-ra egongo da, gutxi gorabehera. Atletiko San Sebastian parean haranzkoan eta bueltan. Helmugan ere, hornidura postua jarriko da.

Aldagelak Anoetako Belodromoan egongo dira.

9. ARTIKULUA – ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatu bada istripua. Aitzitik, ez die erantzungo ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoei.

Bestalde, aseguruak ez ditu bere gain hartuko lasterketa gunera heltzeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak .

10. ARTIKULUA – OSASUN SOROSPENA

Osasun sorospen postuak zirkuituaren puntu desberdinetan eta helmugan jarriko dira.

Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa egitea gomendatzen die lasterkariei; era berean, parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirola egiteak dakarren arriskua.



11. ARTIKULUA – SARIAK

“ROBERS Sari Nagusia”

1. Gizonezkoak/Emakumezkoak, 300€ko erosketa txartela
2. Gizonezkoak/Emakumezkoak, 200€ko erosketa txartela
3. Gizonezkoak/Emakumezkoak, 100€ko erosketa txartela
1. Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<35 urte edo =), 90 €ko erosketa txartela
- 2 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<35 urte edo =), 70€ko erosketa txartela
- 3 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<35 urte edo =), 50 €ko erosketa txartela
1. Gurrpil-aulkian: gizonezkoak/emakumezkoak, 90€ko erosketa txartela
2. Gurrpil-aulkian: gizonezkoak/emakumezkoak, 70€ko erosketa txartela
3. Gurrpil-aulkian: gizonezkoak/emakumezkoak, 50€ko erosketa txartela.

12. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duen momentuan araudi hau onartuko dute, eta GAFri baimena ematen diote, berak edo bitarteko beste entitateek partaidearen datu pertsonalen nahiz proban zehar euren irudiaren erabilera informatikoa egiteko.

Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoaren arabera, parte hartzaileak fitxategian jasotako datuak osorik edo partzialki aldatu ahal izango ditu. Horretarako, GAFera edo Fly Groupera idatziz egin beharko du datu hauek aldatzeko eskaera. Helbidea: (GAF) Kirol Etxea, Anoetako Pasealekua 5, 20014 Donostia. (FLY GROUP) Akarregi poligonoa 12, pab 5-20120 Hernani.

Bertan aurreikusi ez den guztia IAFFren araudiaren arabera aztertuko da.